

## A5 Linda damatxoa...

A3, A8 eta A9ren ahapaldi-egitura bera du poema honek. Lau lerroko ahapaldian aurkezten da errepika (hirugarren eta laugarren lerroetan), eta, ondoren, zortzi lerroko hiru ahapaldietan, zazpigarren eta zortzigarren lerroetan biltzen da lelo hori. Horren arabera, esango genuke poema osoa ezagutzen dugula, esan nahi baita ez dela poema-bukaera galdu, eskuizkribuko 1166-1168 orriak galdu diren arren. Leloak argitu beharko luke poemaren gai nagusia, baina hain zuzen bi lerro horiek dira, hitz guztiak ezagunak izan arren, poema honetako esaldirik ilunena; dirudenez (gure interpretazio bat da, inola ere ez ziurra), mutilak ez du lortzen nesken gogoan geratzea, ahaztu egiten dute beti (pentsamenduan galdu), eta “linda damatxoaren” buruan zer dabilen jakin nahi du mutilak; neskak zein kezka duen jakin nahi du, eta ea berak maite duen moduan maiteko duen.

<b>&lt;1165v&gt;</b>	<p>Linda damatxoa,<sup>1</sup> nola zagode?<sup>2</sup> Beti pensamentuan galzaen zaitue.</p>	
	<p>Ezer trabajurik<sup>3</sup> oita<sup>4</sup> badozu, ene laztantxoa, arren, esazu; guztiau zurea nax ta erraz dagiket.<sup>5</sup></p>	<p>5     10</p>
	<p>Beti pensamentuan galzaen zaitue.</p>	
	<p>Ene laztanorrek, arren, esazu laztan nindukezun<sup>6</sup> on baneretxu;<sup>7</sup> zure mutil ninzan<sup>8</sup> gura zenduke? Beti pensamentuan galzaen zaitue.</p>	<p>15     20</p>
	<p>Inoen bildur baga, arren, esazu zeure pensamentuan</p>	

<sup>1</sup> *Linda damatxoa*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa; euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu.

<sup>2</sup> *zagode*: ‘zaude’.

<sup>3</sup> *trabajurik*: ‘trabarik, arazorik’.

<sup>4</sup> *oita*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>5</sup> *erraz dagiket*: ‘erraz egingo dut, erraz egin dezaket’.

<sup>6</sup> *laztan nindukezun*: ‘maitatuko nindukezun’.

<sup>7</sup> *on baneretxu*: ‘maitatuko bazintut’.

<sup>8</sup> *ninzan*: ‘izan nendin’.

zer dadukazun;  
zurekin ene<sup>9</sup> faltaok  
estaliko det.  
Beti pensamentuan  
galzaen zaitue.

25

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A5 – Linda damatxo... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

---

<sup>9</sup> *zurekin ene*: ‘zure eta nire’; “Xrekin Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.